Sin./Fdo.: MONTSERRAT PETRALANDA GORROTXATEGI - 2026-06-16
KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE ACCIÓN CULTURAL

Sin./Fdo.: BEGOÑA DE IBARRA ZUAZO - 2026-06-16
KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2026-06-17
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2026-06-17
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DG 00118/2026 - Data/Fecha: 2026-06-17
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-06-17

Ahaldun Nagusiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez ASOCIACIÓN CULTURAL BIENAL DE ARTE CONTEMPORÁNEO ARRIETAN elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematen baitzaio, 2026an "Rolling: preludio para una Bienal" proiektuaren zati bat finantzatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren eskumenekoa da, besteak beste, Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea; horrela, berezko kultura ezagutarazteko eta garatzeko aukera ematen da eta Bizkaiko gizartea kultura guztietara zabaltzen da. Horretarako, sail honek Bizkaiaren eta haren Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko kultura- eta arte-adierazpenak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du.

"Rolling: preludio para una Bienal" ASOCIACIÓN CULTURAL BIENAL DE ARTE CONTEMPORÁNEO ARRIETAN elkarteak sustatutako jarduera da. Elkarte hori irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Arrietako udalerrian arte garaikideko bienal bat antolatzeko eta sustatzeko berariaz eratua, arte garaikidea esperimentatzeko, zabaltzeko eta gozatzeko topagune gisa.

Onuradunak uste du Bienala oso tresna baliagarria dela bere estatutu-helburuak lortzeko. Helburu horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: ikusizko arteak, arte performatiboak eta esku-hartze artistikoak sustatzea espazio publikoan eta ingurune naturaletan; gorabidean dauden eta finkatuta dauden artistak babestea eta ikusaraztea; diziplinarteko elkarrizketa sustatzea; edo tokiko kultura-ehuna dinamizatzea.

DECRETO FORAL de la Diputada General por el que se concede a la ASOCIACIÓN CULTURAL BIENAL DE ARTE CONTEMPORÁNEO ARRIETAN una subvención directa para la financiación parcial en 2026 del proyecto "Rolling: preludio para una Bienal".

Entre las competencias del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran el promover y difundir la cultura en Bizkaia, posibilitando con ello el conocimiento y desarrollo de la cultura propia y abriendo ampliamente la sociedad vizcaína a todas las culturas. A tal fin, este departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones artísticas y culturales que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

"Rolling: preludio para una Bienal" es una actividad promovida por la ASOCIACIÓN CULTURAL BIENAL DE ARTE CONTEMPORÁNEO ARRIETAN, asociación sin ánimo de lucro expresamente constituida para la organización y promoción de una bienal de arte contemporáneo en el municipio de Arrieta, como un espacio de encuentro para la experimentación, difusión y disfrute del arte contemporáneo.

La beneficiaria entiende la Bienal como una herramienta de gran utilidad para la consecución de sus fines estatutarios, entre los cuales destacan: el fomento de las artes visuales, performativas y las intervenciones artísticas en el espacio público y los entornos naturales; el apoyo y visibilización de artistas emergentes y consolidados; la promoción del diálogo interdisciplinar; o la dinamización del tejido cultural local.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Testuinguru horretan, adierazi behar da proiektua hasiberria denez, oraindik ere beharrezkoa dela aldez aurretik esplorazio, aktibazio eta definizio programatiko-kontzeptualeko prozesu bat egitea, Biurtekoaren lehen edizioaren oinarriak ezarri ahal izateko. Hori dela eta, 2026ko ekitaldirako "Rolling" ekimena egitea proposatu du erakundeak, 2027an hasiko den Biurtekoaren atariko gisa.

Gauzak horrela, "Rolling: preludio para una Bienal" programa, ekainean eta Arrietako udalerrian egingo dena, honako jarduera hauek egitean datza:

- Egoitza artistikoak, Abdollah Nafsi eta Esteban Torres Ayastuy artista gonbidatuekin.

- Bitartekotza eta entzute prozesua, Saioa Olmoren eskutik.

- Hamaika artista desberdinek ekoitzitako lanen erakusketak, udalerriko zazpi tokitan.

- Prozesuaren dokumentazioa eta erregistroa, Bienalaren lehen ediziorako oinarri gisa.

Proiektuaren gastuen zenbatekoa, guztira, BERROGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR (54.390,00) eurokoa da, erakundeak berak egindako aurrekontuaren arabera.

Proiektuaren berezitasuna haren izaera esperimental eta berritzailean datza, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko landa-ingurunean bitartekaritzaren eta kultur aktibazioaren alde egindako apustuan ere. Era berean, ekimenaren ikuspegi estrategikoa nabarmendu behar da, hainbat urtetarako jomuga markatua duena.

Proiektu honi zuzeneko dirulaguntza bat ematea justifikatzen da finantzazioa norgehiagoka bidezko deialdi publikoaren bidez artikulatzea zaila delako, ekimenaren espezifikotasuna eta gauzatzeko premia kontuan hartuta. Era berean, ekitaldiaren izaera esperimentalak eta bere lurralde-inpaktu deszentralizatuak erakundeen laguntza-modalitate horren egokitasuna indartzen dute. Azken batean, proiektua aukera estrategikoa da arte-sorkuntzaren, kultura-bitartekotzaren eta landa-inguruneko parte-hartze kulturalaren alde egiten duten praktikak indartzeko.

En este contexto, cabe señalar que el carácter incipiente del proyecto todavía requiere de un proceso previo de exploración, activación y definición programático-conceptual que permita establecer las bases de la primera edición de la Bienal. Por este motivo, la entidad propone para el ejercicio 2026 la celebración de “Rolling”, como preámbulo de la Bienal que iniciará en 2027.

De esta manera, el programa “Rolling: preludio para una Bienal” consistirá en el desarrollo, durante el mes de junio y en el municipio de Arrieta, de las siguientes actividades:

- Residencias artísticas, con Abdollah Nafsi y Esteban Torres Ayastuy como artistas invitados.

- Proceso de mediación y escucha, a cargo de Saioa Olmo.

- Exposiciones de las obras producidas por once artistas, en siete localizaciones diferentes del municipio.

- Documentación y registro del proceso, como base para la primera edición de la Bienal.

El importe de los gastos del proyecto asciende a un total de CINCUENTA Y CUATRO MIL TRESCIENTOS NOVENTA (54.390,00) euros, según presupuesto elaborado por la propia entidad.

La singularidad del proyecto reside en su carácter experimental e innovador, así como en su apuesta por la mediación y la activación cultural en el medio rural del Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo, cabe destacar el enfoque estratégico de la iniciativa, con un horizonte marcado para varios años.

La concesión de una subvención directa a este proyecto se justifica por la dificultad de articular su financiación mediante convocatoria pública en régimen de concurrencia competitiva, dada la especificidad de la iniciativa y la urgencia en la ejecución. Asimismo, el carácter experimental del proyecto y su impacto territorial descentralizado refuerzan la pertinencia de esta modalidad de apoyo institucional. En definitiva, el proyecto representa una oportunidad estratégica para fortalecer el desarrollo de prácticas que contribuyan al fomento de la creación artística, la mediación cultural y el aumento de la participación cultural en el medio rural.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ezarritako testuinguruan, “Rolling: preludio para una bienal” proiektuak burutzen dituen jardueren helburu orokorra funtsezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ustez, kultur arloko erakundeen aparteko jarduerei laguntzeko jarduketa-planaren barruan, eta, beraz, garbi justifikatuta dago diruz lagunduko den proiektuaren interes publikoa eta salbuespenezkoa.

En el contexto establecido, el fin general de las actividades que lleva a cabo “Rolling: preludio para una bienal” se considera fundamental por la Dirección General de Cultura del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia dentro de su plan de actuación para el apoyo de actividades de carácter excepcional de entidades en el ámbito de la cultura, justificando claramente el interés público y excepcional del proyecto a subvencionar.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikuluaren arabera, dirulaguntzak zuzenean emateko aukera egongo da, “salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuengatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudenean.

El artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa, “con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, y económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública”.

Zuzeneko dirulaguntza hau ematea guztiz bat dator aipatutako 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan xedatutakoarekin; izan ere, proiektua berezia eta salbuespenezkoa da, eta sail honek kudeatzen dituen ohiko deialdietako batean sartzeak bere funtsa hutsaltzea baino ez lukeelako egingo.

La concesión de esta subvención directa tiene perfecta cabida en lo dispuesto en el mencionado artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, ya que se trata de un proyecto caracterizado por su singularidad y excepcionalidad, manifestadas en su carácter experimental y enfoque estratégico, cuya inclusión en una de las convocatorias ordinarias gestionadas desde este departamento no haría sino desvirtuar su propia esencia.

Azaldutako guztia oinarri hartuta, eta horrelako proposamen bat izateak duen garrantziaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak beharrezkotzat jotzen du dirulaguntza hori zuzenean ematea proposatutako proiektuaren zati bat finantzatzeko.

En base a todo lo expuesto, y siendo conscientes de la trascendencia que tiene poder contar con una propuesta de tales características, desde el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, se considera necesaria la concesión de forma directa de esta subvención para la financiación parcial del proyecto propuesto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Era berean, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Asimismo, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Bestalde, onuradunak adierazten du ez dagoela sartuta foru dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan daude ezarrita), eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluaren arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

Por su parte, la beneficiaria manifiesta no encontrarse incursa en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2026 ekitaldiko aurrekontuko dagokion aurrekontu-partidan, 0405 G/334104/45100 partida, 2008/0242 proiektua, dirulaguntza hau emateak eragingo duen gastuari aurre egiteko beharrezkoa den esleipena dago.

En la partida presupuestaria correspondiente 0405 G/334104/45100, proyecto 2008/0242 del presupuesto para el ejercicio 2026 existe la necesaria consignación para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención en el presente ejercicio.

Dirulaguntza Ahaldun Nagusiaren Foru Dekretu baten bitartez ematen da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9. artikuluak ematen dion eskumena dela bide, eta kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12.2 artikuluak xedatutakoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 169/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriarekin lotuta, zeinak zehazten baititu zenbatekoa dela-eta Bizkaiko Foru Aldundiko organoek dirulaguntzak edo laguntzak emateko dituzten eskumen-mugak.

La subvención se otorga mediante Decreto Foral de la Diputada General en virtud de la competencia atribuida por el artículo 9 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y atendiendo a lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, en relación con la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia que determina los límites competenciales por razón de la cuantía de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para la disposición de gastos derivados de la concesión de subvenciones y ayudas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horregatik, goraxeago aipatutako 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan emandako eskuduntzak baliatuz, eta honako hiru testuok ezartzen dutenaren arabera, alegia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araua eta 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak onetsi duen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudia, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatu andre txit argiak proposatuta, hauxe

Por ello, en uso de las atribuciones conferidas en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005 citada, y en virtud de lo dispuesto por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, aprobado por el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia a propuesta de la Ilma. Sra. Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

LEHENENGOA.- ASOCIACIÓN CULTURAL BIENAL DE ARTE CONTEMPORÁNEO ARRIETAN elkarteari (IFZ G23927080) BERROGEI MILA (40.000) euroko zuzeneko dirulaguntza ematea, 2026ko ekitaldian "Rolling: preludio para una Bienal" proiektua finantzatzeko.

PRIMERO.- Conceder una subvención directa por importe de CUARENTA MIL (40.000) euros a la ASOCIACIÓN CULTURAL BIENAL DE ARTE CONTEMPORÁNEO ARRIETAN (NIF G23927080) para la financiación del proyecto "Rolling: preludio para una Bienal" en el ejercicio 2026.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluak ezartzen duenaren babesean ematen da dirulaguntza hau, justifikatuta baitago deialdi publiko batean sartzeko zailtasuna, dekretu foru honen azalpenezko atalean adierazten den moduan.

Esta subvención se otorga al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, al quedar justificado, tal como queda recogido en la parte expositiva de este decreto foral, la dificultad de su inclusión en una convocatoria pública.

Dirulaguntza honen lehenengo ordainketa, emandako zenbatekoaren % 80, hau da, 32.000,00 euro, 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 0405 G/334104/45100 aurrekontu-partidara (2008/0242 proiektua) egotziko da.

El primer pago de esta subvención, consistente en el 80 % de la cantidad concedida, esto es, 32.000,00 euros, se imputará a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100, proyecto 2008/0242, del presupuesto del ejercicio 2026.

Dirulaguntza honen bigarren ordainketa, gainerako % 20a, hau da, 8.000,00 euro, 2027ko ekitaldiko aurrekontuko 0405 G/334104/45100 aurrekontu-partidara (2008/0242 proiektua) egotziko da.

El segundo pago de esta subvención, consistente en el 20 % restante, esto es, 8.000,00 euros, se imputará a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100, proyecto 2008/0242, del presupuesto del ejercicio 2027.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza bateragarria izango da beste edozein administrazio edo erakunderen (publikoa nahiz pribatua, nazionala, Europar Batasunekoa nahiz nazioartekoa) helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin, baina, hori gertatuz gero, dagokion onuradunak zuzenbidez onargarria den edozein bide erabiliz dirulaguntza publiko horren berri eman beharko lioke honako hau eman duen erakundeari ahalik eta arinen.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la presente subvención foral será compatible con otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras administraciones, entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que ello obste la obligación de la respectiva beneficiaria de comunicar por cualquier medio probatorio aceptable en derecho tal subvención pública, de producirse, a la entidad concedente de la presente a la mayor brevedad posible.

Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2023ko abenduaren 15eko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2831. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea DOUE 2831 el 15 de diciembre de 2023).

Ondorioz, emandako minimis laguntza, guztira, ezin izango da 300.000,00 eurotik gorakoa izan dirulaguntza eman aurreko hiru urteetan, datatik datara zenbatuta.

En consecuencia, la ayuda total de minimis concedida no podrá exceder de 300.000,00 euros en un período de tres años anteriores a la fecha de concesión, computados de fecha a fecha.

Dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza nahiz laguntza, sarrera edo baliabideekin batera (berezko finantzaketa barne), ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

BIGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluak ezartzen duen dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptua betez emango dira dirulaguntza hauek. Ondorio horietarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

SEGUNDO.- La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zergak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

Gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak (egituraren kudeaketa, lokalen mantentzea, hornidurak...) diruz lagundu ahal izango dira, betiere kontzeptu horiengatik guztira aurrekontu araztu osoaren % 10 gainditzen ez bada, eta, nolanahi ere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldiari badagozkio. Zenbateko horrek ez du justifikazio gehigarririk beharko.

Los gastos generales y/o indirectos (gestión de la estructura, mantenimiento de los locales, suministros...) serán subvencionables, siempre que la cuantía total por dichos conceptos no supere el 10 % del presupuesto total depurado y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad. Este importe no requerirá una justificación adicional.

HIRUGARRENA.- Foru dekretu hau onuradunari jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartutzat joko da, eta Euskara, Kultura eta Kirol Foru Departamentuko Kultura Ekintzako Zerbitzuak emandako dirulaguntzaren % 80a, hau da, 32.000 eurokoa, ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzetako Foru Departamentuan. Horretarako, ez zaio inolako bermerik eskatuko onuradunari, ez baita ikusten bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

TERCERO.- Si en el plazo de diez días hábiles tras la notificación del presente decreto foral a la beneficiaria esta no renuncia expresamente y por escrito a la subvención, se entenderá que queda aceptada y el Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte procederá a tramitar el abono del 80% del de la subvención concedida, que asciende a 32.000 euros, ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

Gainerako % 20a, hau da, 8.000 euro, emandako dirulaguntzarako oinarritzat hartutako aurrekontuaren justifikazio osoa izapidetu ondoren ordainduko da, hurrengo ekitaldiko aurrekontu-partidaren kargura.

El 20% restante, que asciende a 8.000 euros, se abonará una vez tramitada la justificación total del presupuesto tomado como base para la subvención concedida, con cargo a la partida presupuestaria del ejercicio siguiente.

Gastu-konpromisoa hartu, betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, eta dirua itzultzeko ebazpenen baten ondorioz zorduna ez dela.

Previo a la disposición del gasto, al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que la beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Eginiko egiaztapenen ondorioz onuradunak aipaturiko betebeharrak ez dituela betetzen antzemanez gero, hamar (10) eguneko epean egoera erregularizatzeko eskatuko zaio, eta, hori egin ezean, emandako dirulaguntzarako eskubidea galdu egingo duela adieraziko zaio administrazio-ebazpen baten bitartez.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la beneficiaria incumple cualquiera de tales obligaciones, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida, previa la correspondiente resolución administrativa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, emandako dirulaguntza diruz lagundu beharreko proiektua finantzatzeko onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko bat da, foru dekretu honen lehenengo xedapenean adierazitakoaren arabera.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 27 del vigente Reglamento de Subvenciones, la subvención concedida representa un porcentaje sobre el presupuesto presentado por la beneficiaria, para la financiación del proyecto a subvencionar, según se indica en la disposición primera del presente decreto foral.

LAUGARRENA.- Foru dekretu honen bidez emandako dirulaguntzaren onuradunak honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

CUARTO.- La beneficiaria de la subvención concedida por el presente decreto foral se compromete a:

a) Dirulaguntza honen xedea den proiektua egitea.

a) Realizar el proyecto objeto de la presente subvención.

b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen erregelamenduko 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak justifikazio-kontua aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa; justifikazio-kontu hori 2027ko martxoaren 31ra arte, hau ere barne, aurkeztu beharko du. Informazio hau jaso beharko du kontu horrek:

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, la justificación del proyecto realizado por parte de la beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el día 31 de marzo de 2027 (incluido), de una cuenta justificativa que deberá contener la información que se indica a continuación:

1. Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

1. Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomiko bat, honako alderdi hauek jasotzen dituena:

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que contendrá:

a) Eginiko jarduerei egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria. Bete beharreko gastu eta diru-sarreren egoerak 1. inprimakian proposatutako ereduaren egiturari jarraitu beharko dio.

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del modelo que se propone en el formulario 1.

b) Aurreko a) atalean adierazitako gastuen egoera osatzen duen kontzeptu bakoitzarentzat, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta bertan adieraziko dira: hartzekodunaren identifikazioa, dokumentuaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, 2. a), b), c) eta d) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta. Justifikazioa egiteko epearen muga-egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 2 a), b), c) y d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Diru-sarreren egoera osatzen duen partida bakoitzarentzat, aurreko a) atalean adierazitako diru-sarreren (dirulaguntzak nahiz bestelako diru-sarrerak) zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta, bertan, zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira, 3. a) eta b) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 3 a) y b).

d) Onuradunak sinatutako zinpeko aitorpen bat, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak aurreko c) letran berariaz adierazitakoak direla.

d) Declaración jurada suscrita por la beneficiaria en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Onuradunak, konpromisoa hartu aurretik, gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta, kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago eskaintza hori egiten duen nahikoa erakunderik edo gastua eskaera egin aurretik egin bada.

e) La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite haber solicitado, con carácter previo a la contracción del compromiso, como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público para el contrato menor, salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatuko da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

La elección entre las ofertas presentadas se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

f) Adierazitako gastuei dagozkien fakturak eta ordainagiriak aurkeztea.

f) Aportación de las facturas correspondientes a los gastos indicados, así como sus justificantes de pago.

Dokumentazio hori artxibo digital bakar batean bidali behar da, formularioan adierazitako gastuen hurrenkeraren arabera antolatuta, faktura bakoitza eta ordainagiria formularioan adierazitako ordena errespetatuz aurkez daitezen.

Dicha documentación debe enviarse en un único archivo digital, organizado de acuerdo con el orden de los gastos indicado en el formulario, de modo que cada factura y su justificante de pago se presenten respetando el orden en que se hayan indicado en el formulario.

Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztagiri horiek egiaztatu ahal izango ditu, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentziak lortzeko egokitzat jotzen dituen laginketa-teknikak aplikatuz.

El Servicio de Acción Cultural podrá realizar la comprobación de los citados justificantes mediante la aplicación de las técnicas de muestreo que estime oportunas para obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

i) Proiektua garatzeko egindako dokumentazio grafikoaren lagin bat, foru dekretu honen seigarren xedapenean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzen duena.

Dirulaguntza hau ematen da erakundeak aurkeztutako aurrekontua oinarritzat hartuz: 54.390 euro, BEZik gabe. Horrek esan nahi du emandako zenbatekoa "Rolling: preludio para una Bienal" proiektuaren % 73,54 finantzaketa dela.

Ehuneko hori erreferentziatzat hartuko da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa zehazteko, jardueraren azken kostuari dagokionez; horrela, dirulaguntza emateko oinarritzat hartutako aurrekontu osoa justifikatu beharko da. Horrek esan nahi du, Dirulaguntzen Erregelamenduaren 77. artikuluaren hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, itzulketa proportzionala egin beharko dela jardueraren azken kostu efektiboa aurrekontu hori baino txikiagoa bada.

BOSGARRENA.- Nolanahi ere, foru dirulaguntza honen onuradunak derrigorrez bete beharko du Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen lege araubide orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoa.

Era berean, dirulaguntza publiko hau jasoz gero, onuradunak aipaturiko foru-arauaren 33. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa bete beharko du.

Azpikontratatzeko, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan jasotakoa bete beharko da. Onartutako azpikontratazioaren gehienezko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren % 90 izango da.

Onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu lagundutako jarduerak osorik edo zati batez egitea harekin lotutako pertsona edo erakundeekin, ondoko baldintzak bete ezik:

i) Una muestra de la documentación gráfica elaborada para el desarrollo del proyecto, que acredite el cumplimiento de lo dispuesto en la disposición sexta del presente decreto foral.

La subvención se ha concedido con arreglo al presupuesto presentado por la entidad, que asciende a 54.390 euros, IVA excluido. Ello supone que el importe concedido se traduce en la financiación del 73,54% del proyecto “Rolling: preludio para una Bienal” en el ejercicio 2026.

Este porcentaje servirá de referencia para la determinación del importe definitivo de la subvención respecto del coste final de la actividad, de tal manera que habrá de justificarse la totalidad del presupuesto tomado como base para la concesión de la subvención. Ello implica, que, en virtud de lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 77 del Reglamento de Subvenciones, procederá el reintegro proporcional si el coste efectivo final de la actividad resulta inferior al citado presupuesto.

QUINTO.- En todo caso, la beneficiaria de la presente subvención foral queda obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En idéntico sentido, la concesión de la presente subvención pública conlleva que la beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral.

A efectos de subcontratación se atenderá a cuanto dispone el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

No podrán concertarse por parte de la persona beneficiaria la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades vinculadas con la misma, salvo que concurran las siguientes circunstancias:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SMEF-W9NH-HP9Z-Q8ID
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea. Horretarako, onuradunak gutxienez ere hiru hornitzaileri eskatu beharko die eskaintza, aldez aurretik, non eta azpikontratatutako jardueren ezaugarri bereziak direla-eta ez dagoen merkatuan behar beste entitate halako jarduerak eskaintzen dituenik, edo non eta gastua ez den egin dirulaguntza eskatu aurretik.

